



Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidaliinak

- 1 Zapterok EAJri eskatu dio "fair playz" har dezala oposiziora pasatzea
- 2 Ertzaintza bi pertsona atxilotzen saiatu da Hernanin, Manex Castrorekin lotura dutelakoan
- 3 Gazte bat atzeman dute Donostian, edukiontzi bat erre duelakoan
- 4 Hego Euskal Herrian 6.564 lagun gehiago zeuden langabezian otsailean
- 5 Nafarroa Baik Rubalcabaren berehalako ageraldia eskatu du Portu eta Sarasolaren ustezko tortura kasua dela-eta

2009-03-01

Atez ate

MIKEL AYERBE

Literatura fantastikoaren generoko zenbait elementu zehaztuz osatu du Josu Waliñok *Bederatzi ateak* ipuin bilduma, kondaira batetik abiatuz misterioa eta beldurra jorratzen dituen narratiba fantastikoa lantzea helburu izanik.

Liburu honen nondik norakoak ulertzeko, sortze prozesuari buruz bi hitz egitea ezinbestekoa da. Waliñok 2007an EHUko Arabako Campuseko Ipuin Fantastiko Laburren lehiaketako sari nagusia irabazi zuen *Bederatzi ateak* izeneko narrazioarekin. Ipuin horrexek zabaltzen du liburua, orain *Lehenengo atea* izenarekin, eta, bertan, Galiziako sineskeria-kondaira batean oinarrituriko infernura daramaten bederatzi ateen gaia agertzen da. Saria irabazi ondoren, Waliñok beste zortzi ateak agertuko ziren beste zortzi narrazio idazteko enkargua jaso zuen. Esku artean dugun liburua da horren guztiaren emaitza.

Narrazio guztietan agertuko dira, beraz, infernurako sarbide diren bederatzi ateen sinesmenean oinarritutako kondairaren zantzuak. Eta hori izan da idazleak narrazioak idazterakoan gaitzitu behar izan duen eronka nagusia, langaia errepikakorra izateak emaitza ere errepikakorra izateko arriskua baitakar. Hori saihesteko, narrazioetan mota guztietako trama bitxiak sortu eta fantasiaren alorreko hainbat estilo nahasi ditu Waliñok: beldur gotikoa jorratzen duten ipuinak; Galiziako mitologiarekin eta hango *meiga*, *mouro*, Santa Compañía, akelarre eta abarrekin estuago lotutakoak; egungo internet edo mp3ak agertzen diren suspensezko gertakizunak... Baina nago, idazlearen intentzioetatik harago, hein batean antzeko formula ezkututzen dela ipuinen garapen narratiboan: misterioa eta beldurra eragiteko gutxieneko girotze zertzelada batzuk (batzuetan besteetan baino lotuago); bat-batean eta ezustean arriskuan aurkituko den protagonistak; eta azkenik, ondorio tragikoak izango dituen amaiera.

Bederatzi dira infernuko ateak, eta badirudi liburuko narrazioek ere bederatzi izan behar dutela. Baina amaitzeko, zirkulua ixten duen *Zikloa ixten da* hamargarren narrazioa biltzen da, berriro ere lehenengo ipuineko hariari tira egin eta pertsonaietako bat garai batean laguna desagertu zen demonioaren elizara itzultzen deneko gertaerak jazotzen dituen. Narrazio honek metafikzioaren atea ere zabaltzen du, ipuineko protagonistak honako hau dioenean: «Horrela osatu dut bederatzi ateen madarikazioa biltzen duen bilduma (...) Baina nire obsesioak, liburua bezala, gertakari batetik abiatzen dira: Xoserren desagertzea». Izan ere, ipuin bilduma honetan narrazioak banaka funtziona badezakete ere, aipatu dugun infernuko ateen alderdi tematikoak lotzen ditu guztiak, eta hamargarren narrazioa egitura osoari lotura estuagoa emateko saiakera argia da.

Denbora-pasa entretenigarri eta irakurteraza lortzea izan du idazleak xede, eta sarritan, inguratzen gaituen errealitate zurrunik edo norberaren errutinatik alde egiteko ihesbidea eskaintzean datza literatura fantastikoko obren balio behinena, eta irudimenaren bidez liburuan baizik ez pentsatzeko aukera ematea. Baina irakurleari zalantzarik ez sortzeko, gertaera txikienek ere justifikatuta egon behar dute testuan, eta hainbat ipuinetan inpresioa izan dut, *Bigarren atea* eta *Bederatzigarren atea* narrazioetan kasu, gertakariak «besterik gabe» jazotzen direla, irakurlearen bidean zalantza gehiegi pilatuz. Edonola ere, ezin esan handinahikeriaz idatzitako liburua denik *Bederatzi ateak*, eta, bere heinean, eskaintzen duena ematen duela deritzot, neurri batean gurean gehienbat gazteentzako idatzi izan den generoa helduengana hurbilduz.

'BEDERATZI ATEAK'

Egilea: Josu Waliño.

Argitaletxea: Txalaparta.

'HABITAT'

Egilea: Katixa Agirre.

Argitaratzailea: Elkar.

Urtea: 2009

Narraziorik narrazio, tankera askotako etxeak agertoki dituzten istorioak ondu ditu Katixa Agirrek *Habitat* obran. Etxea aterpe naturala izan daiteke, edo gotorleku sekretua, edo maitasunerako habia. Askotariko pertsonaien mikrokosmosa marraztu du egileak.

'MADAME CURIE'

Egilea: Eve Curie.

Itzultzailea: Irati Bereau.

Argitaletxea: Klasikoak S. A.

Urtea: 2008

«Marie Curieren bizitzako pasadizo iragankorrez gain, irakurleak haren lana eta bizitza baino askoz ere harrigarriagoa den zerbait bereiztea nahiko nuke: haren izaera aldaezina». Eve Curieren hitzek liburu honen mamia azaltzen dute.

'NEANDERTHAL KANTARIAK'


Egilea: Steven Mithen.

Itzultzailea: Iraia Yetano.

Argitaletxea: Klasikoak S.A.

Steven Mithen Historiarre Goitiarreko irakaslea eta Ingurumen Zientzietako burua da Readingeko Unibertsitatean. *Neanderthal kantariak* liburuan gizakiak musikarekin izandako lehen bizipenak aztertu ditu, lan sakonaren bidez.

Telefonoa: 943 304 030 / Faxe: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa